

JARDUERA FISIKO ETA KIROL SUSTAPENA, EGOERA EPIDEMIOLOGIKO NEURRIEN ARABERA.

2021eko urtarrilaren 15ean eguneratua.

Jarduera Fisiko eta Kirolaren (JFKren) sustapena COVID19aren pandemiaren kudeaketa irizpideen baldintzapean dago. Hori, aldi berean, zure udalerraren egoera epidemiologikoaren arabera antolatuko da. Udalerrri mota bi eta kudeaketa mota bi egongo dira:

- **UDALERRI GORRIA.** 100.000 biztanleko 500eko edo altuagoko intzidentzia tasako udalerrria.
- **GAINONTZEKO UDALERRIA.** 100.000 biztanleko 500eko intzidentzia tasatik behera dagoena.

Osasun Sailaren azken txosten epidemiologikoa herriz herri [HEMEN](#).

[Lehendakariaren 2121/01/12ko 1/2021 DEKRETUAK](#) 2020ko abenduaren 10eko [Lehendakariaren 44/2020 DEKRETUA](#) moldatu du eta bakarrean bildu du. Indarraldia otsailak 09ra arte du.

Eusko Jaurlaritzako Jarduera Fisiko eta Kirol Zuzendaritzak [jarraibideak](#) eguneratu.

JARDUERA	UDALERRI GORRIA Intzidentzia tasa 500<	GAINONTZEKOAK Intzidentzia tasa 500>
Kirol-eremu, patinaje-pista (skating) edo aire zabaleko erabilera publikoko espazioak.	BAI	BAI
Ikastetxeko eskola kirola, eskola ordutan.	BAI	BAI
Ikastetxeko eskola kirola, eskola orduz at.	EZ	BAI
Klubetako eskola adineko kirola.	EZ	BAI
Gainontzeko eskola adineko kirola.	EZ	BAI
Lizentzia federatuko lehiaketak	EZ	BAI
Eskola-kirol lizentziako lehiaketak	EZ	BAI
Kirol zentroetako bakarkako erabilera.	BAI	BAI
Bikotekako kantxa alokairuak. (frontoi, tenis eta padel)	EZ	BAI
Talde kantxa alokairuak. (aisialdikoak).	EZ	EZ
Programatutako ikastaro eta jarduerak.	BAI	BAI
Aire librean, kontaktu gabekoa eta gehienezko 6ko taldetan egindako jarduera fisikoa.	BAI	BAI
Tipi Tapa edo ibilaldi osasungarrien sustapena.	BAI	BAI
Lehiaketa profesional edo erdi-profesionaletan murgilduriko entrenamendu saioak eta lehiaketak.	BAI	BAI
Gainontzeko entrenamendu federatua	EZ	BAI

Testu honek ez du lege izaerarik. Duen asmo bakarra neurri mugatzaileetatik haratago JFK sustapenerako aukerak eskaini eta ikustarazi. Bide horretan, interpretazio edo zalantzak kirolak@gipuzkoa.eus bidez bideratzen ari gara, lege-eskumena EJarena izan arren.

<p>MUGIKORTASUNA eta MUSUKOA</p>	<p>Kirol-jarduerak eta aire libreko jarduera-fisikoak egiteko baimena dago. Beti ere, lurralde historikora mugatuta eta GORRI egoeran dagoen udalerritan sartu gabe. Hala ere, zure udalerrria beste lurralde historiko bateko mugakidea bada eta beti ere, udalerrri mugakidea gorria ez bada joan zintezke JFK egitera.</p> <p>UDALERRI GORRItako herritarrek ezin dute udalerritik atera jarduera fisikoa eta kirola egitera.</p> <p>Jarduerak bakarka, bizikidetzataldetan edota gehienezko 6ko taldetan egin ahalko dira. Jarduerak beti kontaktu gabekoak izango dira.</p> <p>MUSUKOA NAHITAEZKOA. Bakarkako praktika hiri-gunean (paseatu, bizikletan ibili,...) egiten bada, edo/eta jendea biltzen den lekuetan egiten bada, musukoarekin egin behar da. Salbuespen bakarria hiri-eremutik at egiten den praktika da, berau indibiduala edo/eta bizikidetzataldean egin daiteke.</p> <p>EHIZA ETA ARRANTZA. Baimenduta. Musukoa nahitaezkoa beti, baita 1,5 m segurtasun distantzia mantenduta ere.</p> <p>ERABILERA PUBLIKOKO ESPAZIOAK. Kirol-guneak, irristaketa pistak eta aire zabaleko erabilera publikoko espazioen erabilera baimentzen da gehienezko edukiera 1px/4m2-koarekin. Udalerrien ardura da eremu horien antolaketa bai eta garbitasun- eta higie-baldintzak bermatzea ere.</p> <p>MUGIKORTASUN ZIURTAGIRIAK. Kirol langile eta kirolarien mugikortasuna ziurtatzeko erakundea kirolari edo teknikariaren erakundea bera izango da.</p>
<p>KIROL ORIENTAZIO ZERBITZUAK</p>	<p>MUGIMENT GIPUZKOA ESTRATEGIA egoera epidemiologikora egokitzen ari garen arren, lehen, eta orain gehiago, Gipuzkoar guztientzako jarduera-fisiko sustapena egiteko garaia da. Horretarako, GIPUZKOAKO KIROL ORIENTAZIO ZERBITZUEN SAREA ezinbesteko aukera izan daiteke.</p>
<p>TIPI TAPA</p>	<p>Aire librean, gehienezko 6koteko taldetan egin daiteke.</p>

<p>ESKOLA KIROLA</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Eskola (adineko) kirol entrenamendu eta saioekin berrekin daiteke. • Lehiaketak etenda darraie. • Aldagelak eta dutxak ezin dira erabili, igerilekuetako kirolarietarako izan ezik. <p>Beraz, ondoren zerrendatutako programak BERRABIARAZI EGITEN DIRA, GORRI dauden udalerrietan izan ezik:</p> <ul style="list-style-type: none"> • MULTI KIROLA eta JOLASHEZI. • HASTAPEN JARDUERA PROGRAMAKO ESKOLA ORDUZ KANPOKO JARDUERAK. • ESKOLA KIROL EGOKITUA. • ESKOLA KIROLEKO PROGRAMATIK AT DAUDEN KIROL JARDUERAK. (KIROL ESKOLAK ETA ARAUTU GABEKO IRAKASKUNTZA JARDUERAK). • BESTE EDOZEIN 6-16 URTE BITARTEKO ESKOLA ORDUZ KANPOKO KIROL-JARDUERA ANTOLATUA: igeriketa ikastaroak, surf eskolak, hipika,... • MENDIZALETASUNA. Aire zabaleko jarduera aire librean gehienezko 6kotetan.. <p>GORRIAn dauden udaletarako ESKOLA ADINEKO KIROL EZ PRESENTZIALEko jarduerak sustatzea proposatzen dugu. HEMEN baliabideak.</p>
-----------------------------	--

	<p>HASTAPEN JARDUERAK. eskola-ordu barruko eta kanpoko hastapen-jarduerak egin daitezke. Bereziki, Igeriketa Sustapen Kanpaina sustatu nahi dugu, burbuila-taldetan eta ikastetxe bakoitzeko Kontingentzia Planen arabera. Iraskuntza-jarduera horietako arduradunek, bere jarduna, ikastetxeko antolaketari egokitu beharko diote.</p> <p style="text-align: right;">Kiroletan hasteko jardureak(2020/21 ikasturtea).</p> <p>PROTOKOLOAK. Ikastetxetako Eskola Kirolak ikastetxe bakoitzeko berariazko protokoloa jarraitzearekin batera, taldeak seiko azpitalde egonkorretan antolatu behar ditu. Aldundiko programaren barruan dauden gainontzeko eskola adineko kirol jardueretarako Aldundiekin irailan adostutako protokoloa jarraitu beharko da. (esteka).</p> <p>IZEN EMATEAK. Urtarrilak 31era arte, izen-emateak egin ahalko dira. Hortik martxoak 31 bitartean, ikastetxeek baino ezingo dituzte izen-emateak egin eta beti ere, eskualdeko bulegoen bitartez.</p>
<p>IKUSLEAK</p>	<p>Lehiaketa, ekitaldi edo kirol-ikuskezun bat ikustera joatea debekatua dago.</p>
<p>KIROL ZENTROAK</p>	<p>JENDAURREKO ORDUTEGIA: Beti, 06:00-21:00 bitartean.</p> <p>UDALERRI GORRIETAKO KIROL ZENTROETARA SARRERA, soilik, udalerriko herritarrei baimenduko zaie. Eta udalerrikoak ez diren abonatu edo ikastaro eta bestelako kirol-zerbitzuen erabiltzaileek ezin izango dituzte horiek erabili herrira sarrera itxia baitute.</p> <p>JARDUERA INDIBIDUALA Osasun agintariak tokiko kudeatzaileei onarturiko instalazio eta protokoloen antolaketaren arabera. Musukoaren erabilera nahitaezkoa da. Salbuetsita egonik bere erabilera jarduera bizia den unetan.</p> <p>ALDAGELAK ETA DUTXAK. GORRI EZ DIREN UDALERRITAN aldagelak erabili daitezke edukieraren %30arekin, dutxak bakarka erabiliz, segurtasun distantzia mantenduz, dutxa hartzeko unean ezik uneoro musukoa eramanez eta aireztapena bermatuz.</p> <p>UDAL GORRIEK, ezin dituzte aldagelak erabili, igerilekuetako jardueretarako salbu.</p> <p>IKASTAROKAK. Osasun agintariak tokiko kudeatzaileei onarturiko protokoloak jarraitu beharko dira. 6 kideko taldetan antolatu behar dira ikastaro eta ekintza programatuak.</p> <p>Jarduerok 6 kideko azpi-taldetan antolatu daitezke, eta begirale bat, aldi berean, azpitalde batekin baino gehiagorekin aritu daiteke.</p> <p>Azpi-taldeak egonkorrak izan behar dira bizikidetzat talde bat balira bezala. Ez da kontaktu fisiko zuzenik onartzen ez hezitzailea taldekideen artean ezta taldekideen artean ere.</p> <p>Taldeak ere, 6tik behera antolatu daitezke, 5naka edo 4naka adibidez.</p> <p>ALOKAIRUAK. Taldekako ekintzetarako alokairuak debekatuak daude. 1:1 eta 2:2 motako tenis, frontoi eta paddel jarduerak baimenduta daude UDAL GORRIetan izan ezik.</p> <p>IGERILEKUAK. Osasun agintariak, jarraitzen du, zehaztu gabe, zenbat igerilari egon daitezkeen igeriketa kale batean. Gipuzkoako udalerrri gehienek bi igerilari dituzte kaleko. 3 dituztenak ere badaude.</p> <p>ALDEZ AURREKO ERRETSEBIA. Araubidean, berriro, nahitaezko txanda hartzeko erretsebarekin aipamenik egiten ez den arren; zenbait kirol-guneen kontrolerako baliabide eraginkorrenetako izaten jarraitzen du.</p>

KIROL FEDERATUA	
GOI MAILAKO KIROLA	<p>BETI entrenatu eta lehiatu ahalko dira, udalerrri gorritakok izanda ere:</p> <ul style="list-style-type: none">• Lehiaketa profesionaletako kirolariak eta taldeak.• Lehiaketa erdi-profesionaletako kirolariak eta taldeak.• BAT Basque Team eta bestelako goi-mailako kirolarik onspen ofiziala dutenak. <p>Zirkulazio geografiko mugarik ez dute. Ezta ziurtagiri ofiziala duten beren teknikariek ere ez.</p>
ENTRENAMENDU FEDERATUA	<p>Lehiaketa eta entrenamendu federatua baimenduta dago, GORRIA diren udalerrietan izan ezik.</p>